



## Egun bat baino gehiago izan dadin

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira, ekintza ugari egin dira herrian; eraso matxista bat salatu du Lasarte Moriak asteartean / 8-9

TXINTXARRI

## Labaka, finalaren atean

Finalurreko ona eginda, igandera arte itxaron beharko du Ane Labaka bertsolariak / 6

Asteburuan egingo dute  
Pintxo Ibilbidearen VII.  
edizioa; zazpi pintxo  
aurkeztu dituzte  
parte-hartzaileek / 2

Rugby Europe  
Txapelketan marrazain  
lanak egin ditu Jon  
Ibisate Alday  
lasarteoriatarrak / 11



## txintxarri

**GABONETAKO ALE BEREZIAK  
ABENDUAREN 20EAN ETA 27AN**

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?  
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

publizitatea@ttakun.eus

943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66 



Pintxo ibilbideko parte hartzaileak, epaileak eta Aterpea elkarteko zein udaleko ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

## Zazpi pintxo lehian, zazpigarren edizioan

Pintxo ibilbidearen edizio berriak pintxo gozoak dastatzeko aukera emango du gaurtik igandera. Herritarrek gogokoena bozkatu eta 200 euroko saria eskuratu dezakete. Aurten elkarte gastronomikoek ere bozkatu dute. Sarituak abenduaren 11n jakingo dira

### Txintxarri

Araeta Sagardotegia, Yolanda taberna, Txartel kafetegia, Buenetxea kafe-taberna, Arkupe taberna, Lasarte taberna eta Eguzki taberna. Pintxo ibilbide polita izango da gaurtik igandera Lasarte-Orian egin ahalko dena.

Pintxo ibilbidearen zazpigarren edizioko aurkezpena egin dute Aterpea Merkatari eta Ostalari elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak Semblante Andaluz elkartearen.

Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak azaldu ditu aurtengo lehiaketaren nondik-norakoak, eta bi berrikuntza aurkeztu ditu.

Lehenik, epaile berria egon da. Urtero legez, sukaldari ezagun batek erabakitzen du sari nagusia. Martin Berasategi edo Ramon

Roteta izan dira orain arte epaile lanetan egon direnak, eta aurten Sergio Humada sukaldariaren txanda izan da. Sukaldari gazteak Casa Humada jatetxea ireki berri du, lehen Txitxardin Beltza zenean. Humadak aurkeztutako pintxoaren kalitatea goraiatu du, eta erabakitzeko zailtasunak izan duela aitortu.

Bestetik, herritarren sariak ere izan du aldaketarik: herritarren iritziez gain, elkarte gastronomikoena bilduko da-eta.

Elkarte gastronomikoetako kideek astelehenean probatu zituzten pintxoak eta hiru ezaugarri puntuatu behar zituzten, 1etik 5era: zaporea, originaltasuna eta aurkezpena.

Orain, herritarren iritzia biltzea besterik ez da geratzen. Asteburuan zehar, ibilbidean parte hartzen

duten zazpi taberna horietara joaten diren herritarrek euren gogokoena bozkatu ahalko dute. Parte hartzen duten herritarrek 200 euroko saria lortu ahalko dute. Saria Aterpeko komertzioetan gastatu ahal izateko erosketabonoetan banatuko da.

Abenduaren 2an bozka guztiak jaso eta 3an zenbatuko dira. Abenduaren 11n jakitera emango ditu Aterpeak VII. Pintxo Ibilbideko sarituak.

Ormazabalak eskerrak eman dizkie denei: Lasarte-Oriako Udalari, bere laguntzarengatik; pintxo ibilbidean parte hartuko duten tabernei; epaile lanetan egon diren Sergio Humadari eta elkarte gastronomikoei; eta, bereziki, Semblante Andaluz elkarteari, "ekimena bertan egitea ahalbidetzeagatik".

### Munduko perkusio-instrumentuak ezagutzeko ikastaroa

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria sailak *Perku Mundua* ikastaroa eskainiko du Gaztelekuan. Perkusio afrikarra, txalaparta, kaxa flamenkoa eta gorputz perkusioa landuko dira. Egun bakoitzeko instrumentu bat ezagutu eta jo ahalko dute gazteek.

Ikastaroa abendu eta urtarrileko larunbat goizetan izango da, goizeko 11:30etik 13:30era, eta euskaraz izango da.

Lasarte-Orian errolatutako pertsonentzat 3,80 euroko prezioa izango du izen emateak, eta gainerakoentzat, berriz, 25,33 eurokoa izango da. Abenduak 4a da izena emateko azken eguna, eta Gaztelekuan edo Udalaren webgunean egin ahal izango da.



Bazkideentzako ikastaroa egin du Ganbo Iturri elkarteak, Mirentxun. TXINTXARRI

### Auzoetako bizitza suspertu, elkarbizitzan eragiteko

Uztailetik urrira arte egindako hausnarketa prozesuari buruzko ikastaroa egin du Ganbo Iturri elkarteak

### Txintxarri

Ikastaro bat egiteko eta elkarbizitzaz hitz egiteko baliatu zuten pasa den asteko larunbat goiz euritsua Ganbo Iturriko kideek. Gogoeta prozesu bat egin du elkarteak aurten, uztailetik urrira: *Auzobizitza suspertu elkarbizitza berregiteko* izenburua jarri diote ariketa horri. Hausnarketa horren nondik norakoen berri eman zuten Julen Goikoetxeak, Ganbo Iturriko kideetako batek. Dozena

bat bazkide elkartu ziren Mirentxuko aretoan.

Ikastaro hori eginez itxi dute lau hilabeteko gogoeta prozesua. Elkartearen kideek adierazi dutenez, hausnarketaren helburuetako bat izan da auzo-elkarbizitzako esparru kaltetuenak zeintzuk izan diren identifikatzea, eta horien baitan lan egitea. "Gure historiari begiratuta, auzokidetzatik sortu izan dira gizarte-erakunde garrantzitsuenak".

### Bi izar gehiago, Berasategiren konstelazio gastronomikoan

Bilboko Ola eta Lisboako Fifty Seconds jatetxeek lortutako izarrekin, guztira hamabi ditu sukaldariak

### Txintxarri

"Ilusio berdinarekin" jarraitzen duela adierazi du Martin Berasategi sukaldari donostiarrak, bi Michelin izar gehiago lortu ostean. Sevillan aurkeztu zen Michelin gida

berria, eta honetan Bilboko *Ola* eta Lisboako *Fifty Seconds* jatetxeak izan dira onuradunak, izar batekin bakoitza.

Horri esker, Michelin izar gehien dituen sukaldaria da. Egun, hamabi ditu, zazpi jatetxeri

esker: Lasarte-Oriako Martin Berasategi eta Bartzelonako Lasarte jatetxeek hiruna dituzte; bi ditu Tenerifeko MBk, eta izar bana dituzte Donostiako eMe Be Garrote, Bartzelonako Oria, Bilboko Ola eta Lisboako Fifty Seconds jatetxeek.

Berasategi lotura estua du Lasarte-Oriarekin, bertan ireki baitzuen bere lehenengo jatetxea, ikasketak amaitu eta bere familiaren Bodegon Alejandro jatetxean lan egin ostean. 1993an ireki zuen Martin Berasategi

jatetxea Loidin, eta ordutik bertan da lanean.

Joan den urtean, Berasategiren ibilbidea saritzeko, Loidiko jatetxearen ondoko parkeari sukaldari donostiarraren izena jarri zioten, eta Julian Toquero artistak eskultura bat egin zion. Garai hartan hizketan ibili ginen Berasategirekin, eta "sekula espero" ez zuen ametsa bizitzen ari zela esan zigun. Bestalde, inguruko pertsona eta talde guztiei esker halako arrakastarik lortuko ez zuela azpimarratu zuen.



Martin Berasategi. TXINTXARRI



Literatur lehiaketako sarituek eta udal ordezkariak familia argazkia atera dute ekitaldia bukatutakoan. TXINTXARRI

# Irakurzaletasuna sustatzeko akuilua

Aurtengo literatur lehiaketetako sariak banatu ditu Lasarte-Oriako Udalak, kultur etxeko hitzaldi aretoan. Gazteak izan dira lan gehien aurkeztu dituztenak: 200 baino gehiago. Bi idazle bizkaitarrek irabazi dituzte euskarazko poesia eta mikrokontakizun sari nagusiak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Gutxitan ikus daiteke leporaino beteta Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoa. Zita horietako bat da Lasarte-Oriako literatur lehiaketaren sari-banaketa. Joan den larunbatean egin zuten aurtengoa. Idazleak, euren senide eta lagunak eta udal ordezkariak eseri ziren aulkietan. Apenas zegoen espaziorik hizlarien mahaian ere: diplomak eta lore-sortek eman zioten kolorea. Agustin Valdivia alkateordea, Maite Iglesias Kultura zinegotzia eta Xabier Goitia teknikaria eseri zirenean hasi zen ekitaldia.

Urteak daramatzate Aitor Tejedorrek eta Roberto Yabenek

sari-banaketa ekitaldian parte hartzen. Irabazleen lanen zati batzuk irakurtzen ditu Tejedorrek; Yabenek musikatu egiten ditu pasarte horiek, gitarra klasikoaren laguntzaz. Julene Iraolaren *Beldurra* eta Miguel Pazzen *La Solidaridad de las islas* mikrokontakizunak aukeratu dituzte aurtengoa.

## Gazteen irudimena, bor-borka

Imajinazioa paperera eraman dute idazle gazteenek. 223 lan aurkeztu dituzte aurtengo edizioan. Horietatik 147 ondu dituzte 2007. eta 2009. urteen artean jaiotako neska-mutilek. Haur eta Gazteen 32. Literatur Lehiaketa, zenbakitan.

Helduen lehiaketa urtebete lehenago hasi ziren egiten: 33. edizioa izan da aurtengoa. 38 poesia aurkeztu dituzte, eta 76 mikrokontakizun. Aurrekontua 8.690 eurokoa izan da.

Bizkaia aldera joan dira euskarazko mikrokontakizun eta poesia sariak aurtengoa. Igor Mercado leioarrak eta Eneko Amezaga de Diego zallarrak irabazi dituzte, hurrenez hurren, *Berandu* eta *Neguko bidai*a lanekin. *Lasarte-Oria* sariak ere banatu dituzte kategoria horietan. Julene Iraolak irabazi du mikrokontakizunena, *Beldurra* lanarekin. Poesiarena, berriz, Lide Hidalgo, *Gustuak* idazlana aurkeztuta.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

## Mitoak

Mitoak mito dira eta beraz edozein benetako azterketa, kritika edo saihepenen gainetik daude. Berdin da pertsona, erakunde edo hiriez ari bagara. Berriki New Yorken 10 egun pasatzeko moduan izan gara eta han sortu zitzaidan hausnarketa. Hura da zalantzarik gabe hirietan hiri, bertan topatu daitezke "gure" mendebaldeko kosmosaren adierazpide asko eta asko eta nahi izanez gero, ekialdekoaren ere bada zutikako Boulebarren batek etzandako kaleren batekin tupust egiten duen bidegurutzearan.

Esan gabe doa gure bizitza eta mundu ikuspegiaren eragin nabarmena duela zineak. Txikitandik filmak ikusten ohituta gaude eta horiek Estatu Batuak dituzte sorburu kasik gehienetan. Eta behar bada New Yorkeko kaleak dira pelikula horietan gehien azaldu izan direnak. Horregatik egiten zaigu hain ezagun hiriko hainbat kale eta eraikin. Horrek ematen dio besteak beste xarma. Dena aldeko beraz orain arte esandakoetan.

Bainakoak bilatzen hasita ordea baditu bereak. Izugarria den hiri guztiek bezala erritmo erora eramaten zaitu eta sentsibilidaderik txikiena edukita ere han dagoen gizarte kohesio eza oso deigarria da. Askok dira kaleetan, hotzetan, sufritzen ikusi daitezkeenak lehen-lehen munduko, inperioko ordezkaria den gunean. Eta horrekin batera, erraza da, errazegia, gaizki jatea: merkeagoa ondo jatea baino.

Bi adibide besterik ez, esateko, kilikagarria dela New York, ezagutu beharrekoa, baina "beti bizitzeko", gurea nahiago. Osasun zerbitzu unibertsala eta txukun jateko atea zabal zabal irekita. Oinarriko kanpamendua hemen eta gero, hori bai, batera eta bestera mugitzea: hor dago nire ustez puntu egokia. Hausnarketa txiki bat, besterik ez, mito den hiritik itzultzean.

## Euskal Jantziak nola jantzi, Ane Albisuren eskutik

Tradiziozko jantzietan aditua den Ane Albisuk euskal jantzi tradizionalak era egokian jantzeko saioa egingo du abenduaren 13an, 18:00etan, Jalgi Kafe Antzokian.

Ttakun kultur elkarteak antolatzen duen jantzi tradizionalen ikastaroaren harira antolatuta da saioa. "Ane

Albisurenekin lan egin dut uda honetan eta ikastaroaren berri eman nion. Berak jantziak amaitzean saio batera etorri zela aipatu zidan," azaldu du Ione Artola ikastaroko irakasleak.

Atorra, blusa, gona, zapia... ikastaroan egin diren lanak oinarri hartuta proposamenak egin eta azalpenak eskainiko ditu Albisuk Eguberri hauetan dotore jantzita egoteko. Jakinmina duten herritar guztiei irekitako saioa da.

**Ipuin kontaketa berezia...**  
Asmakizunak, abestiak eta poesiak ... ipuinak lantzeko!  
**HH3-HH4koentzat**  
**Abenduaren 10ean, 17:45ean**  
Anbulatorio gaineko 2. solairuan.

Izena emateko:  
Ttakuneko bulegoan,  
aisia@ttakun.eus  
whatsapp: 695785392

Ttakun Kultur Elkartea  
LASARTE-ORIA  
@TtakunKE

**Lehiaketa martxan!**  
ESLOGAN BILA GABILTZA!

Bidali: abenduaren 1a baino lehen

Ttakun Kultur Elkartea  
"....."  
**Bidali eslogana:  
harpidetza@ttakun.eus**

SARIA: Santo Tomas ferian gastatzeko 2 bono



EH Bildu Lasarte-Oriako kideak, euren bulegoan, asteazken arratsaldeko prentsaurrekoari ekin aurretik. TXINTXARRI

## "Lau hilabete alferrik galdu ditu udalak"

Landaberriko aldaparen afera baloratu du EH Bildu Lasarte-Oriak. "Epeak azkartzeko eta arazoa konpontzeko garaia da". Neurri batzuk jarri ditu mahai gainean: Udal Gobernuari eskatuko dio mikropiloteen egitasmoa "lehenbailehen" esleitzea, abenduko plenoan

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Landaberri ikastolako aldaparen afera baloratu du EH Bildu Lasarte-Oriak. Uste du azken lau hilabeteak "alferrik galdu" dituela Udal Gobernuak: "Nahikoa denbora galdu da arazoa nork konpondu behar duen argitu nahian; arazoa konpontzeko eta epeak azkartzeko ordua da". Lasarte-Oriako Udalarenaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren jarrera ere salatu du: "Euren inplikazio eza eta interes falta lotsagarria izaten ari da". Koalizio abertzaleak esan du ez dela inorren zain geratuko; iragarri du neurri batzuk jarri dituela mahai gainean.

Horietako bat izango da datorren ohiko udalbatzarrean mozio bat aurkeztea. EH Bilduk jakinarazi du aldapari buruzko txosten geoteknikoa duela bi aste iritsi dela udaletxera. "Bi irtenbide planteatzen ditu dokumentuak, eta bat hobetsi: mikropiloteen proiektua". Obra egiten hasteko, ordea, egitasmoa esleitu beharko

luke udalak. Urrats hori "lehenbailehen" egitea galdegingo du koalizio abertzaleak abenduko plenoan. "Benetako arazoa Landaberrin ikasten duten 500 umeek eta euren familiek daukate. Eta iristear dago negua".

### "Egoera tamalgarrria da"

Aldaparen egoerak sortu dituen arazoez gain, beste batzuk nabarmendu ditu: "Ikastolako zuzendaritzak eta guraso elkarteko kideek azaldu digute itokin, hezetan eta uholde arazo larriak daudela; tamalgarrria da eraikinaren egoera". EH Bilduko legebiltzar-kide Rebeca Uberarekin batera egin zuten bisita, iragan astean. Eraikina aztertu eta gero, EH Bilduk honakoa eskatuko du

**"HEZETASUNAK, ITOKINAK, UHOLDE ARRISKUA... EGOERA TAMALGARRIAN DAGO ERAIKINA"**

legebiltzarrean: Landaberri bisita dezala Hezkuntza Sailak, arduradun eta guzti, ikastetxearen arazoak "bertatik bertara" ikus ditzan. Horri lotuta, koalizio abertzaleak asmoa dauka guraso elkarte gonbidatzeko Eusko Legebiltzarrerara, bertako kideei aferaren nondik-norakoak azal diezazkieten.

"Badirudi 2020. urtean burutuko dituela udalak sabai berria egiteko lanak, arazo asko konponduz", aipatu du EH Bilduk. Dena den, gogoratu du obra horrek "2018rako" egon behar zuela bukatuta, Sasoetako fatxadarekin batera. "Udal Gobernuaren kudeaketa txarraren ondorioz, konponketa gastuen %60a estaltzeko aukera galdu dugu; diru-laguntza bat eskaintzen zuen Jaurlaritzak".

Beste eskaera bat ere egin du EH Bilduk: Landaberri publiko bihurtu zen garaiko hitzarmena -Hezkuntza Sailak, udalak eta ikastetxeak sinatu zuten- eta titularitate aldaketa horren agindua eskuratzea.

## Asteon hasi da Zubietako erraustegiaren probaldi ofiziala

Aurreikusita zegoen, eta hala jazo da: Zubietako erraustegia zaborra erretzen hasi da proba fasean

### Txintxarri

Ostegunean, azaroak 28, goizean goiz hasi da Zubietako erraustegia zaborra erretzen, orduan baitzegoen hitzartuta proba fasean hasiera. Goizeko ordu txikitik, *Noaua* hedabideko kideek zabaldu duten moduan, erraustegiko tximiniak kea botatzen hasi dira.

Nahiz eta ofizialki Zubietako erraustegiaren proba fasea ostegunean hasi, badira asteak kea dariola erraustegiari. Azaroaren 4ean, adibidez, kea ikusi zuten hainbat bizilagunek

erraustegiko tximinietatik ateratzen, baina orduan instituzioek adierazi zuten kea ez zela erraustegitik ateratzen, "TMB Tratamendu Mekaniko Biologikoaren plantatik" baizik. Hala ere, TMB plantak martxa betean jarraitu zuen ondorengo egunetan.

Joan den asteburuan, baina, erraustegitik bertatik kea ateratzen zela salatu zuten. Azaroaren 28an hasi behar zuen probaldiak, baina igandean -azaroak 24- TMB plantako tximiniari bi gehitu zitzaizkion.

## Nafarroako Kontseiluak Katziporretaren alde egin du ebazpenean

Nahiz eta Nafarroako Kontseiluak, Nafarroako Gobernuaren aholkulari gorenak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan eta Iruñeko udalaren arteko kontratua legezkoa dela adierazi, Iruñeko udalak ikuskizuna ez dela egingo berretsi du. Iruñeko udalak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna debekatzeko zuten agiria

"desegokia" dela adierazi du Kontseiluak.

Enrique Maia Iruñeko alkateak berretsi du ikuskizuna ez dela egingo Baluarte zentroan, baina debekuaren argudioak aldatu ditu. Nafarroako Kontseiluaren ebazpenaren ostean, Enrique Maia alkateak "pailazo hauen ideologia" udalaren haurtzaro planarekin bateraezina direla adierazi du. Ikuskizuna debekatu zuenean, baina, kontratuaren "irregulartasunagatik" egin zuela adierazi zuen.



TXINTXARRI

## Presoak etxeratzeko aldarria

Mobilizazio jendetsua egin zuen Sare Lasarte-Oriak joan den asteko ostiralean: larriki gaixo dauden euskal presoak etxeratzeko aldarria kalera atera zuen, beste behin. *Larriki gaixo dauden presoak etxera!* lelodon anbulantziarekin batera, herriko erdigunea zeharkatu zuten manifestariak. Okendo plazan bukatu zuten ekitaldia; ekintza gehiago iragarri zituzten.

# Hari doinuak, XV. Musika Topaketei hasiera emateko

Oiasso Kamerata boskotea izango da gaur Danok Kidek antolatzen dituen Musika Topaketen lehen saioan. Egitarau erakargarri eta bizia dakar boskoteak, Mozart eta Vivaldi musikari handien doinuetatik Coldplay talde britainiarraren 'Viva la vida' abestira

## Txintxarri

Danok Kide elkarteak emanaldi erakargarri batekin emango die hasiera gaur, 19:30ean, aurtengo Musika Topaketei. Oiasso Kamerata boskoteak eskainiko du emanaldia. Hari boskotearen eskutik, doinu klasiko eta ezagunak entzungo dira Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Bi musikari handi izango dira protagonista nagusiak kontzertuaren lehen zatian, Mozart eta Vivaldi. Konpositore bakoitzaren bina lan eskainiko ditu hari boskoteak: Mozarten *Pequeña serenata nocturna* eta Vivaldiren *Concerto alla rustica* eta *Concierto para cuerdas en sol menor*.

Hari boskoteak musika klasikoa jotzera mugatzen ez direla erakutsiko du bigarren zatian. Horretarako, estilo anitzetako lanak aurkeztuko dituzte Musika Topaketen saioan.

Brasilgo doinuak; Brian Balmages, Carlos Gardel eta Astor Piazzolaren tangoak; Ennio Morriconeren *Cinema Paradiso*, *La vida es bella* filmeko doinua; Karl Jenkinsen *Palladio*; eta Queen eta Coldplay talde britainiarren *Bohemian Rhapsody* eta *Viva la vida* abestiak izango dira egitarauaren



Oiasso Kamerata boskotea Andoainean eskainitako kontzertu pedagogikoan. AIURRI

bigarren zatia osatuko duten lanak.

## Musikari profesionalak

Ama Brigitarren komentuan egongo den boskotea Kamerata Oiasso hari orkestrako atal buruek osatzen dute.

Horietako bat Tomas Ruti Vilar herritarra dugu. Biolin-jolea irakaslea ere bada, eta hainbat hari edo kamara taldeetako partaide da, Et Incarnatus orkestrakoa, esate baterako.

Oiasso Kamerata 2013. urtean sortu den hari-orkestra da eta kontzertu ugari eskaini ditu Euskal Herriko txoko guztietan. Kameratako kide gehienak

musikari profesionalak dira eta Euskadiko Sinfonikoarekin, Bilboko Sinfonikoarekin, Musikeneko Sinfonikoarekin, Frantziako Euskal Kostaldeko Orkestrarekin, Nafarroako Sinfonikoarekin eta herrialdeko zein atzerriko beste ganbara taldeekin jo dute.

Ez da hori musikarekin Danok Kidek urtea amaitu baino lehen izango duen azken hitzordua. Abenduaren 11n, asteazkenez, 19:00etan, opera emanaldien saio berria izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Oraingoan, *Opera Gala: Live from Baden-Baden* ikuskizunaz gozatuko dute musika mota horretako zaleek.

## Ttakun KEk San Tomas azokan postuak jartzeko deialdia ireki du

Abenduaren 13a izango da eskaera egiteko azken eguna, ostirala; azoka hilaren 21an egingo dute, arratsaldez

## Txintxarri

San Tomas azoka prestatzen hasi da Ttakun Kultur Elkarteak. Abenduaren 21ean egingo du, larunbatarekin, arratsaldez. Okendo plazan postuak jartzeko deialdia ireki du: abenduaren 13a izango da eskaera bidaltzeko azken eguna, ostirala.

Kultura saileko arduradun Maitane Rebek aditzera eman duenez, bi baldintza bete beharko dituzte azokan modu horretara parte hartu nahi dutenek: egun

berezi horretako giroarekin bat egitea, baserritarrez jantzita; eta bezeroei harrera euskaraz egitea.

Izena eman nahi duten pertsonak mezu bat bidali behar dute [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) helbide elektronikora. Zehaztu beharko dituzte elkartearen eta taldearen arduradunaren izenak. Esan bezala, abenduaren 13a izango da azken eguna. Kultura saileko arduraduna ahal bezain pronto jarriko da harremanetan interesa duten guztiekin.



TXINTXARRI

## Santa Zeziliaren omenez

Emanaldia egin du Alboka abesbatzak asteburuan, San Pedro parrokian, Santa Zezilia eguna ospatzeko. Lau piezaz osatutako erreperitorioa eskaini zuten igandean, 13:00etako mezarekin batera: aurrena, J. Haranbururen 6. *salmoa*; gero, *Virgo Del Genetrix* kantu gregoriarra; hirugarrenik, Faur'en konposagile frantziarraren *Cantique de Jean Racine*; eta, bukatzeko, *Arantzazuko Ama Birjina* doinua entzun zen, Josu Elberdinek egindako moldaketari esker.

# ARDO-DASTATZEA

## 5 ARDO + 5 PINTXO

Mikel Garaizabal ardo dibulgatzailearen eskutik

ABENDUAK 13, 19.30ean **TAKUNENA ELKARTEAN**

12 € Ttakuneko bazkideak / 15 € ez-bazkideak

Tiketak salgai: Ttakun Elkarteak (Geltoki, 4)  
Informazioa: 943 37 14 48 edo 695 78 53 89 [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)

**haz**  
KULTURAREN ERKIDETZA



Ane Labaka bertsotan, irudiaren eskuinaldean. Erdian, Asier Azpiroz haren txandaren zain. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

#### Iñaut G. de Matauko Rada

Beñat Gaztelumendik irabazi du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa eta, beraz, finalerako zuzeneko txartela. Ane Labakak eta Asier Azpirozek, finalaurrekoan hirugarren eta laugarren, igandera arte itxaron beharko dute finalera sartu diren jakiteko, orduan izango baita hirugarren eta azken finalaurrekoa.

Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi eta igandean Tolosako finalaurrekoa irabaziko duen bertsolaria dira finalera zuzenean sartuko diren hiru lehiakideak, eta puntuazioaren arabera ondorengo bostek osatuko dute finaleko zortzikoa. Alaia Martin (493,5 pt), Ane Labaka (472,5 pt), Nerea Elustondo (467 pt), Asier Azpiroz (463 pt) eta Iñaki Apalategi (459 pt) dira, oraingoz, finalera sartuko liratekeen bost partaideak.

Abenduaren lehen egunean izango da hirugarren eta azken finalaurrekoa Tolosako Usabal kiroldegian, 17:00etan. Beñat Lizaso, Haritz Mujika, Iban Urdangarin, Jokin Uranga, Jon Maia eta Oihana Iguaran izango dira partaideak, eta Saroi Jauregik egingo ditu aurkezle lanak. Finala, berriz, abenduaren 14an izango da Donostian, Illunbe Arenan. Gipuzkoako zortzi bertsolari onenak aurrez aurre izango diren finaleko saioa 17:00etan hasiko da. Tolosako finalaurreko zein Donostiako

# Labakak oin eta erdi du finalean

Hirugarren eta laugarren izan dira Ane Labaka eta Asier Azpiroz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoan, eta igande honetan Tolosako saioan zer gertatuko den itxaron beharko dute Donostiako finalera sailkatu diren ala ez jakiteko

finaleko sarrerak [bertsozale.eus](http://bertsozale.eus) webgunean erosi daitezke.

#### Igandekoa digeritzen

Saio berezia izan zen igandekoa Ane Labakarentzat. Ezagunez inguraturiko finalaurreko saioan emaitza bikaina lortu eta gero, igandean Tolosako azken finalaurrekoan zer gertatuko zain dago, baina berak ere badaki aukera garbiak dituela abenduaren 14ean Illunbeko oholtza zapaltzeko.

Emozioz beteriko saioa izan zela onartu du Labakak: "Kantukideen artean oso giro

**"NAHIZ ETA TXAPELKETA IZAN, TALDEAN JARDUN GENUENAREN SENTSazioA DUT"**

ona zegoen; talde bat ginenaren sentrazioa genuen, eta publikoak sumatu zuela uste dut. Ilusio berezia egiten zidan saio honek", adierazi du.

Txapelketa Amaia Iturriotzekin prestatu du gehienbat Labakak, baina Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendirekin batera ere entrenatu du. Asier Azpiroz, berriz, betidanik ezagutzen du. Erlazio estua duen jendez inguraturiko saioa izan zen Oiartzungoa.

Kalitate handiko saioa izan zela esan du Labakak, eta nahiz eta Gaztelumendi nabarmendu, denek orokorrean saio ona egin zutela azpimarratu du: "Alaia Martin bakarkakora arte bereziki ondo ikusi nuen, nire ustez ordurarte onena. Gero, bakarkako saioan Beñat Gaztelumendi oso ondo ibili zen, beti bezala. Amaia Iturriotz asko gustatu zitzaidan,

eta Azpik [Asier Azpiroz] perlak utzi zituen. Denok eman genion gure ukitua".

Sentsazio gazi-goza izan zituen Labakak igandeko saioan. Lehiakideekin oso gustora ibili zen, eta taldean jardun zutenaren sentrazioa izan zuen. Hala ere, urduritasunak tentsio handia eragin zion gorputzean: "Egia esan tentsio handiegia izan nuen saioan zehar, gorputzean batez ere. Martxa hartuta burua ondo joan zen. Urte guztian zehar landu ditudan hainbat gauza islatzeko ahalmena izan dudala uste dut, eta horregatik pozik

**"PASATZEKO AUKERA ERREALAK DITUT, BAINA IGANDERA ARTE ITXARON BEHAR DUT ORAINDIK"**

nago egindako saioarengatik. Bakarkako saio on batekin borobildu nuen finalaurrekoa. Ideia aldetik oso solte ikusi nuen nire burua, eta aurretik nahi nuen horretatik nahiko gertu ibili nintzen". Hobetzeko tartea beti dagoela esan du, baina ahala ere egindako saioarekin ezin dela kexatu dio.

Labaka kontziente da finalean sartzeko aukera handiak dituela, baina nahiago du igandera arte itxaron, beti gerta daitekeelako espero ez duzun zerbait.

Azken finalaurreko sei bertsolariatatik bostek Ane Labakak baina puntu gehiago egin beharko lituzkete finaletik kanpo geratu dadin, eta horrelako txapelketa batean oso zaila dela uste du, baina guztiz erlaxatu ezin dela dio. Finaletik kanpo geratuz gero, txapelketa positiboki baloratzen jarraituko duela azpimarratu du Labakak, "honaino iristea opari bat" dela baitio.

Barre artean, lagun batek "oin eta erdi" finalean dituela esan diola kontatu digu. Hala ere, Labakak nahiago du oraindik finalean dagoela ez pentsatu eta igandera arte itxaron: "Egia da oso ondo kokatua nagoela, baina nahiago dut igandera arte itxaron finalean pentsatzen hasi eta saioa prestatzeko".

## Behin-behineko sailkapena

Hauek dira, oraingoz, finalerako txartela lortu duten bertsolariak:

#### Zuzenean sailkatuak

Beñat Gaztelumendi 506 pt  
Agin Laburu 501 pt


#### Sailkatu birtualak

Alaia Martin 493,5 pt  
**Ane Labaka 472,5 pt**  
Nerea Elustondo 467 pt  
**Asier Azpiroz 463 pt**  
Iñaki Apalategi 459 pt

#### Ofizialki kanporatuak

Iñigo Mantzizidor 453 pt  
Unai Mendizabal 452 pt  
Unai Gaztelumendi 447 pt  
Amaia Iturriotz 438 pt  
Eñaut Martikorena 434 pt



ZKO



# Etorkizuna orain



Gipuzkoa  
etorkizuna da.  
Iritsi den  
etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN

# "Justizia administratiboa hobetuko nuke: baliabide gehiago eta profesional enpatikoagoak behar dira"

Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeekin lan egiten du Alaitz Zugasti abokatu donostiarra, Gipuzkoako Foru Aldundian. Aholkularitza juridikoa eskaintzen die: "Gugan datozen emakumeei zalantzak argitzen saiatzen gara; bidean laguntzen diegu"

## Maddi Zaldua

Gipuzkoako Foru Aldundian indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei aholkularitza juridikoa eskaintzen die Alaitz Zugasti abokatuak (Donostia, 1975). Bide juridikoan pentsatzen jarrita, burura etor litekeen lehen hitza epaiketa izan liteke, baina Zugastik azaldu du, eskaintzen duten zerbitzuaren prozeduretako bat den arren, ez dela bakarra. "Gugana datozen emakumeei zalantzak argitzen saiatzen gara, salaketaren aukera azaldu eta gaiarekiko jarraitu dezaketen bidean laguntzen diegu".

Zugastiren esku jartzen diren emakumeen kasuak, oinarriko zerbitzu sozialetatik bideratutakoak izaten dira beti. Hau da, ez da beharrezkoa salaketarik jartzea aholkularitza jasotzeko. "Gipuzkoako herri bakoitzeko gizarte langileek egiten dute eskaera, eta probintzia osorako sei abokatu ari gara lanean; gutxi gorabehera, barruti judizial bakoitzeko bat".

Laguntza juridikoarekin batera, aspektu psikologikoan ere babestu daiteke emakumea. Urgentziazkoak diren kasuetan, aldiz, Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura jo dezakete.

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeak babesteko indarrean dauden legeak egokiak diren edo ez galdetuta, hobetzeko aukera "beti" dagoela erantzun du Donostiako abokatuak. Halere, argi dauka berak, eta ez da legeen aldaketan gehiegi zentratzen: "Justizia administratiboan eskatuko nituzke hobekuntzak nik; baliabide gehiago eta

profesionalen aldetik jarrera enpatikoagoak ezinbestekoak dira".

Hainbatetan, ordea, indarkeria matxista jasan duen emakumeak justiziaren aldetik jaso dezakeen erantzuna erabat bestelakoa izan liteke. "Erlazio sentimentala egon den bikote baten kasuan, indarkeria matxista gertatu denean, "beti hartuko da indarkeria matxista kasu gisa". Gerta liteke, ordea, bikotekideek elkar salatzea, eta, horren ondorio gisa, emakumea ere kondenatua izatea. Kontrasalaketak gertatzen direnean, bi salaketak prozedimendu berean ikusiko dira, eta Emakumeen Gaineko Indarkeria arloko epaitegiak tramitatuko dituela azpimarratu du Zugastik.

Ez du uste kontrasaleketek sinesgarritasuna kendu diezaieketenik emakumeen salaketei. "Horrela gertatzen den kasuetan, bi aldeak entzungo dira eta epaitegiak onartutako proba egingo da". Proba hori "oinarrikoa" izan daitekeela azaldu du, batez ere indarkeria ez denean fisikoa izan, eta epaitegiko mediku forentse talde batek egindako txostena izaten da.

## Beldurra nagusi

Ezin uka liteke indarkeria matxistaren aurrean, emakumeek beldurra sentitzen dutela beti, ezinbestean. "Guk, hainbat tresna eta baliabide jartzen ditugu emakumeen eskura beldur horri aurre hartzeko, baina beldur handia sumatzen dugu". Foru Aldundiko abokatuak, ordea, argi dauka beldur horren jatorria

zer den. "Informazio falta handia dago, eta nire ustez, informazioa edukitzea ezinbestekoa da". Horregatik, defendatzen du, indarkeria jasan duen emakume batek jakin behar duela, adibidez, salaketa jartzeak zein bide irekitzen dizkion, baina baita bide horrek ekar ditzakeen une zail edo gogorrek ere. "Salaketa batekin beti ez da batek nahi duena lortzen. Garrantzitsuena emakumearen ongizatea da, eta zenbaitetan, salaketak baino gehiago lagundu dezake bikote harreman bat eteteak, adibidez".

Horregatik, emakumeei prozesua "bere erritmoan" egitea aholkatzen die Zugastik. "Salaketa jartzeko erabakia hartzen denean, emakumeak prest dagoenean ekin behar dio prozesu judizial horri".

## Ikastaroez harago, enpatia

Abokatuaren eskolak legeen profesionalentzako eskaintzen dituen ikastaroei ez die garrantziarik kentzen Zugastik. Formakuntza saioak "beharrezkoak" direla uste du, baina horren guztiaren gainetik, enpatia gailentzen da berarentzat. "Indarkeria jasan duen emakumearekin enpatiko izan behar da, pazientzia ezinbestekoa da eta emakumearekiko gertutasuna agertzea ere oso garrantzitsua da".

## BARRUTI JUDIZIAL BAKOITZEKO ABOKATU BAT ARI DA LANEAN; SEI DIRA GIPIZKOA OSOAN



Oriarte institutuan hainbat ekintza egin dituzte aste osoan zehar. TXINTXARRI



'El Encaje Roto' antzezlanaren taularatu zuten Makelur elkarteak ostiralean. TXINTXARRI





'Erradikalak ginen' ikuskizuna eskaini zuten Bea Egizabal eta Ane Labakak asteazkenean, kultur etxean. TXINTXARRI



Goian, 'Beldur Barik'-en sari-banaketa; behean, asteleheneko elkarretaratzea. TXINTXARRI

## Indarkeria matxistari buruzko datuak Lasarte-Orian

<b>16</b>	<b>9</b>	<b>8</b>	<b>28</b>
Genero indarke- riako atestatuak	Salaketa	Babesteko aginduak	Babesteko aginduak indarrean

## Gipuzkoan

<b>825</b>	<b>112</b>
Salaketa	Babesteko aginduak

## Euskadin

<b>2.856</b>	<b>402</b>
Salaketa	Babesteko aginduak

## Espainiar estatuan

<b>80.814</b>	<b>19.792</b>
Salaketa	Babesteko aginduak

**52 Hildako biktimak**



Lasarte Moria mugimenduak deituta, elkarretaratzea egin dute asteon Okendon, eraso matxista bat salatzeko. TXINTXARRI

## Asteburuan gertatutako eraso matxista bat salatu dute


Herrian jazotako eraso matxista bat salatzeko elkartu dira hainbat herritar Okendo plazan, Lasarte Moria plataformak egindako deiarri erantzunez. Ordu erdiz egin dute protesta. Ondoren, mugimenduko kideek egoera baloratu dute. "Indarkeria matxistaren aurkako borroka ez da egun soil bateko sinbologian geratzen; eguneroko borroka da", nabarmendu dute.

"Beste behin ere, gure ahotsak batuz, asteburuan jazotako eraso matxista gaitzesten dugu".

Azpimarratu dute indarkeria matxistak "aurpegi asko" dituela: fisikoa, sexuala, emozionala, eta, beste askoren artean, instituzionala. Azken faktore horretan jarri du fokua Lasarte Moriak: "Salaketak jarri ditugunean, gure sinesgarritasuna ezbaian jarri dute, eta epai soziala

indartu". Egoera horiei aurre egiterakoan ikusten dituzten gabeziak zerrendatu dituzte, Lasarte-Oria ere barruan sartuz: "Falta dira protokolo egoki bat, formazioa, baliabideak eta beste hainbat kontu".

Honako mezua zabaldu dute: "Indarkeria matxistaren aurpegi desberdinei esan nahi diegu aurrean izango gaituztela. Gora autodefentsa eta borroka feminista!".

Txus Alonso Kirol zinegotzia eta Hirigintza buru Agustin Valdivia, *Oriaren gainean* proiektua aurkezten. TXINTXARRI

# Kiroldegi berriak badu irabazlea: 'Oriaren gainean'

Udalaren eskaerei hobekien erantzuten dien proiektua da. Mahai teknikoak eta herritarrek bat egin dute bi proiektu onenak aukeratzeko. Urtebete izango du Sabai arkitektoak enpresak oinarritzko egitasmoa eta exekuzio-proiektua egiteko

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak kiroldegi berriko proiektuaren lehiaketako irabazlea jakitera eman du. Agustin Valdivia Hirigintza eta Lanak arloko buruak eta Kirol zinegotzi Txus Alonsok erabakiaren berri eman dute

eta prozeduraren hurrengo pausoak azaldu dituzte.

Sabai arkitektoak enpresak aurkeztutako *Oriaren gainean* proiektua Udalaren eskakizunak "hobekien" betetzen dituen proiektua da, Valdiviaren hitzetan: "Aldagelen arazoa

ongien konpontzen laguntzen duen aukera da eta 600 metro karratuko erabilera anitzeko terraza du. Udan igerilekua irekiko litzateke eta urtean zehar beste ikastaroen saioak bertan egiteko aukera egongo litzateke", azpimarratu du Valdiviak.

Proiektuak eskaintzen dituen onuren artean, futbol zelairako grada berria eta kafetegi handi eta independentea daude, Valdiviak gehitu duenez. Horrez gain, proiektuak ingurumena eta eraginkortasun energetikoa ere kontuan izan dituela azpimarratu du Hirigintza buruak. Hori guztia eta *Oriaren gainean* proiektuari buruzko informazio gehiago udalaren webgunean ikusgai dagoela jakitera eman du.

## Parte-hartze prozesua

*Oriaren gainean*, kiroldegi berriko proiektuaren lehiaketako irabazlea aukeratzeko pausoak ere gogora ekarri ditu Valdiviak. Lehiaketako lehenengo fasean, hamalau proiektu aurkeztu ziren, eta epaimahaiak bost aukeratu zituen. Epaimahai udal-arkitektoek, EHUko arkitektura eskolako zuzendari Juan Jose Arrizabalagak eta herriko alkateak osatu dute.

Proiektu horien erakusketa publiko kiroldegiko kafetegian egin zen, eta herritarrek erabakian parte hartu zuten; galdeketa baten bidez haien gogokoena bozkatu zuten. Valdiviaren hitzetan, guztira 92 pertsonen iritzia jaso ditu Udalak, baina 70 hartu dituzte kontuan, besteek baldintzak betetzen ez zituztelako.

Epaimahaiak ere azterketa tekniko egin eta bi proiekturen artean egon da lehia, *Oriaren gainean* eta *Beirazko pasabidea*. "Pozik gaude. Mahai teknikoak

eta herritarren iritzia bat etorri dira bi proiektu horiek hoberenak zirela zehazteko", azpimarratu du Valdiviak.

Azken erabakian, mahai teknikoaren iritzia gailendu dela ere jakitera eman du. "Proiektu irabazleak 69 puntu lortu ditu 80tik; *Beirazko pasabidea* egitasmoak, berriz, 63".

## Kiroldegi berria, 2023an

Kiroldegi berriaren proiektuak jarraituko duen prozedura ere azaldu du Valdiviak. Urtea amaitu baino lehen Sabai arkitektoak enpresarekin oinarritzko proiektua eta exekuzio-proiektua egiteko esleipen kontratua sinatuko du udalak. Esleipen hori 268.834 eurokoa da, eta urtebeteko epea du enpresak azken proposamena aurkezteko. Izan ere, Valdiviaren hitzetan, "aukera onena da, baina gauza batzuk fintzeko daude eta elkarrekin lan egingo dugu horretarako".

Udalak, bitartean, lanak finantzatzeko diru iturriak bilatuko ditu. Obra guztiak 14.500.000 bat euroko gastua izango du. Behin udalak enpresaren txostenak izatean, lanen kontratuaren esleipen lehiaketa jarriko du martxan. Ondo bidean, 2020 urte amaierarako lanak hasi eta bi urtetan amaituak egotea aurreikusten du udalak. Hau da, 2023an kiroldegi berria izango luke Lasarte-Oriak.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b>
<b>Lagun Onak KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 14:00. Garmendipe, Azpeitian.
<b>ERREGIONALEN GORENGOA</b>
<b>Kostkas KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 15:15. Matigoxotegi, Donostian.
<b>JUBENILEN 1. MAILA</b>
<b>Danena KE B - Ostadar SKT B</b> Igandea. 16:00. Elbarrena, Zizurkilen.
<b>Ostadar SKT A - Danena KE A</b> Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Kostkas KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 11:30. Matigoxotegi, Donostian.
<b>KADETEEN 1. MAILA</b>
<b>Intxurre KKE A - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 09:30. Elorri, Alegian.
<b>Ostadar SKT B - Ordizia KE</b> Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean.
<b>Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

<b>INFANTILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Euskalduna SD</b> Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL TXIKIA, SAILKATZE FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Vasconia CD</b> Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Zarautz KE B - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 12:45. Asti-txiki, Zarautzen.
<b>Texas Lasartearra - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>SENIORRAK, 1. MAILA</b>
<b>Eguzki Aldaz H.K. - Teep Samaniego Orixe Tolosaldea</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>Teep Samaniego Orixe Tolosaldea - Eguzki ISU Leihoak</b> Ostirala. 20:45. Uzturpe pil., Tolosan.
<b>JUBENILAK</b>
<b>Laskorain KE - Eguzki Balerdi Harategia</b> Larunbata. 10:00. Usabal kir., Tolosan.
<b>Eguzki 2KN - Summa Aldapeta</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.

<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - TAKE</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
<b>SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - BKL Senior Tercera</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDUA</b>
<b>Inar Optika ISB - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:45. Azpeitiako kiroldegian.
<b>JUNIOR PARTAIDETZA</b>
<b>Añorga Saskibaloia C - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Benta Berri kir., Donostian.
<b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>
<b>Ostadar SKT - Fiskalan ISB</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia B</b> Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>JUBENIL-SENIOR MAILA</b>
<b>Hernani - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Hernaniko kiroldegian.

<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALA, PROMOZIOA, BINAKAKOA</b>
<b>Artega II eta Erasun - Alberdi eta Salaverri</b> Larunbata. 19:00. Fuenmayor, Errioxan.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA, ESKUZ BANAKAKOA, 1. SENIORRA</b>
<b>Intza - Tolosa</b> Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean. (Bigarren partida)
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA, ESKUZ BANAKAKOA, 2. KADETEA</b>
<b>Intza - Zazpi Iturri</b> Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean. (Lehen partida)
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto ZRT - Uribealdea RKE</b> Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Gaztedi B - Babyauto ZRT Beltzak</b> Larunbata. 16:30. Gamarra, Gasteizen.

<b>18 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>La Rioja - Babyauto Zarautz/Beltzak</b> Larunbata. 12:45. Pradoviejo, Logroñon.
<b>16 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>La Rioja - Mutriku/Zarautz/Beltzak</b> Larunbata. 11:30. Pradoviejo, Logroñon.
<b>IGERIKETA</b>
<b>ALEBIN LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKTKo alebinek Ligako hirugarren jardunaldia dute.</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
<b>JUDO</b>
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
<b>LOKEko Asier Sagasti senior mailako Espainiako txapelketako azken fasea jokatuko du.</b> Larunbata. 09:00. Fuenlabrada, Madril.
<b>LASTERKETAK</b>
<b>ZARAUZKO BIKOTE ISTOEN KROSA</b>
<b>Lasarte-Oriako hainbat korrikalariak Zarauzko 7 kilometroko proban parte hartuko dute.</b> Igandea. 11:30. Zarautzen.

# "Telebistan ikusitakoa zuzenean bizi izan dut"

**JON IBISATE ALDAY** ERRUGBI-EPAILEA ETA MARRAZAINA

Zazpi urte daramatza lasarteoriatar gazteak errugbiaz beste ikuspuntu batetik gozaten: epailea da. Euskadin, nagusia; kategoria altuagoetan, aldiz, marrazain lanak egiten ditu

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Errugbi-epailea eta marrazaina da Jon Ibisate Alday (Lasarte-Oria, 2000). Alemanian pasa zuen aurreko asteburua; Rugby Europe Txapelketan linier lanak egin ditu, Alemania-Herbehereak partidatzen. Telebistan ikusi izan ditu neurketa horiek orain arte; larunbatean, bera izan zen telebistan azaldu zena.

Hamabi urterekin murgildu zen mundu horretan, Gipuzkoako Federazioak antolatutako ikastaro batean parte hartuz. Bere adineko jokalarien partidak zuzentzen zituen. "Txikitatik harritu nau nola errespetatzen duten, eta zenbateko presentzia daukan", aitortu du Ibisatek. Zazpi urte beranduago, arbitro nagusia da Euskadi mailan; marrazain lanak ere egiten ditu kategoria altuagoko partidatan. Astebururo, lanpetuta. **Alemanian egon zara orain dela gutxi, Rugby Europe txapelketako neurketa batean, marrazain gisa. Zer moduz? Asimilatu duzu bizitako guztia?**

Ikaragarria izan zen neurketa: Alemaniaren eta Herbehereen banderak, ereserkiak, giro izugarria... Duela gutxi telebistan ikusten nuena zuzenean bizi izan dut. Neurri batean, errealitate bihurtu dut ametsa.

Ostiralean iritsi ginen Heidelberg hirira [Frankfurtetik



Beltzak errugbi taldearen kamisetarekin etorri da Ibisate hitzordura. TXINTXARRI

ordubetera dago]. Gosaldur ostean, zelaia ezagutu genuen. Orduan ikusi genuen zenbateraino zaintzen duten protokoloa horrelako kirol ekitaldietan: epaileok ez genituen lizentziak berrikusi behar, ezta beste tramite batzuk egin behar ere. Pertsona bat zeukaten lan hori egiteko. Gu arbitratzera mugatu ginen.

**Nolatan izan duzu aukera europa mailan marrazain gisa aritzeko?**

Euskadi mailan epaile nagusi bezala aritzen naiz. Kategoria altuagoetan, berriz, marrazain. Iñigo Atorrasagasti donostiarra da epaile nagusia; harekin

ibiltzen naiz hara eta hona. Jakin zuenean Rugby Europeko partida bat zuzendu behar zuela, deitu egin zidan; ez nuen asko pentsatu, eta animatu egin nintzen.

**Nola sentitu zinen partidaren zehar?**

Hasieran, pixka bat urduri. Baina, oro har, arbitratzeko partida ona izan zela uste dut, ez zegoen jokaldi zail askorik. Lehen zatia oso orekatua izan zen; 7-10, Herbehereen alde. Bigarrenetan, ordea, beste martxa bat sartu zuten, eta alemaniarrek baino askoz hobeto jokatu. 7-37 irabazi zuten. Inpotentzia hori tarteko, jokaldi zikinen bat edo

beste egin zuten etxekoek. Baina ez zen neurketa zaila izan.

**Partida bukatu eta gero, hirugarren denbora. Anekdotarik?**

Jokalariek eta epaileek egin genuen hirugarren denbora, trajez jantzita. Hiru arbitrook [epaile nagusiak eta bi marrazainek] txapela jantzita erabaki genuen. Horrela egon ginen: trajez jantzita, baina txapelarekin.

Ikusi genuen Alemaniarekin debuta egin zuten jokalariek bazeukatela "kontratu" moduko bat: selekzioaren pin bat zeukaten, eta belarririk gisa jarri behar izan zuten.

**Noiz hasi zinen epaile lanak egiten?**

Hamabi urte nituenen. Txikitatik deitu dit arreta errugbiari zentzuz errespetatzen duten epaileak. Ikastaro bat antolatu zuen Gipuzkoako Federazioak, eta apuntatzea erabaki nuen. 10 eta 12 urte azpikoen kategoriako partidak zuzentzen hasi nintzen. **Zazpi urte beranduago, Rugby Europe txapelketara joan zara.**

Pixkanaka-pixkanaka joan naiz epaile izatearen munduan murgiltzen, eta kategoriaz igotzen. Zenbait urte probintzia mailan arbitratu ostean, Euskadin hasi nintzen lan hori egiten, 2017-18 denboraldian. Iñigo Atorrasagasti zen orduan Euskadiko epaileen burua; berak proposatu zidan urrats hori ematea. Beti esaten dit gauza bera: "Ikusten badut konpromisoa daukazuela, eta ongi arbitratzen duzuela, zuekin kontatuko dut beti".

**Hemeretzi urte, eta selekzioen arteko neurketa bat curriculumean. Gauzak ongi egiten ari zaren seinale.**

Bai. Ondo bidean, hemendik bi urtera gustatuko litzaidake Ohorezko B mailan epaile nagusia

izatea. Baina ez daukat presarik. Etorri behar badu, etorriko da. Gauza bakoitza bere momentuan.

**Jokalariek ere izan zara hainbat urtez.**

Aurten erabaki dut arbitrajearen %100 zentratzea. Duela bi urte, 18 urtez azpiko taldean nintzela, Euskadiko Liga irabazi genuen. Hurrengo urterako entrenatzen hasi eta berehala, deitu egin zidan Iñigo Atorrasagastik, eta bere taldeko kide izatea proposatu; Espainia mailako neurketetan marrazain gisa aritzen naiz. Iaz Ohorezko mailako finala zuzendu genuen. Asteburuan Bartzelonara noa. Madril eta Valladolidera ere bai, laster.

**Horren agenda estuarekin, ateratzen al duzu tarterik zuretzat?**

Momentuz, ongi uzartzen ditut epaile lanak eta ikasketak. Ahal dudan guztietan ateratzen naiz kalera lagunekin ere, nahiz eta asteburu askotan ezin naizen haiekin geratu. Aurreko astean, esan zidaten pintxo-poteko lehen erronda nire kontu izango zela, Alemaniara nindoala-eta.

**Zure gertukoek ulertzen dute egoera?**

Bai, eta eskertzen diet. Amak askotan eraman izan nau autoz partidatara, gidabaimena oraindik ez neukanean. 'Ongi arbitratu ezazu gaur', esaten dit. Lagunek ere beti galdetzen didate ea asteburuan nora joatea tokatzen zaidan. Eta ezin ahaztu Beltzak taldearen babesa eta animoak ere. Munduko Kopako partida batzuk ikusi ditugu elkarrekin Gure Etxean; epailea naizenez, nire iritzia eskatzen zidaten jokaldi askotan. Ingalaterraren zale sutsua naiz ni; brometan, baina beraien alde egiten nuen beti! Begiratzen dut epaileek egiten duten lana, ikasten jarraitzeko.

Irakurri elkarrizketa osoa [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) webgunean

## Areto-futbolaren inguruko ekintzak, barra-barra

Gabonetako Txapelketaren V. edizioa egingo du Eguzki Areto Futbolak Eguberrietan; gaztetxoek topaketa, etzi

### Txintxarri

Gero eta gutxiago falta da Eguberrietako oporraldia iristeko. Merezitako atseden hartuko dute orduan hainbat kirolariek eta taldek. Areto-futbolaren inguruan lanean dabiltzanek,

ordea, ekintza ugari programatu dituzte datozen asteetara begira. Azken urteetako ohiturari jarraiki, Eguzki Areto Futbolak Gabonetako Txapelketa egingo du, abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra arte. Irekita dago izena

emateko epea, abenduaren 12ra arte, osteguna. Interesa dutenek Cecilia fruta-dendara eraman beharko dute inskripzio orria. 50 euro ordaindu behar dituzte taldeek parte hartzeko. Kategoria bakoitzean hamarna jokalariko zortzi talde onartuko dituzte antolatzaileek, ez gehiago.

Txapelketa hasi aurretik, abenduaren 14an, probintziako areto-futbol entrenatzaileentzako jardunaldia antolatu du Gipuzkoako Federazioak, Maialen Chourraut kiroldegian. Lau

ordukoa izango da saioa, 10:00etatik 14:00etara. Doakoa izango da jardunaldia, baina apuntatu nahi duenak 943 473 057 telefono zenbakira deitu edo mezu bat idatzi beharko du [aretofutbola@kirolak.net](mailto:aretofutbola@kirolak.net) helbide elektronikora.

### Gaztetxoek topaketa, igandean

Abendua hastearekin batera egingo du Eguzki Areto Futbolak gaztetxoek arteko lehenengo topaketa, Michelinen. Eguzki, Ibarra, Antiguoko eta Eskoriatza

klubek parte hartuko dute, 09:15etik aurrera.

Asteburu honetan hasiko da baita ere herriko areto-futbol txapelketa. Bederatzi taldek izena eman dute aurten. Hauek dira aurreneko jardunaldiko partidak: 13:30ean, Garoa Taberna-Buenetxea Taberna; ordubate beranduago, Trumoi Taberna-Viña del Mar; 15:30ean, Patricio Cocktail Bar-Asador Irigoien; eta, 16:30ean, Avenida-Bar Goiko. Insaustik atseden hartuko du. Larunbatean jokatuko dira neurketa guztiak.

# "Nire semeak bultzatuta itzuli nintzen xakera"

**JUAN RODRIGUEZ XAKE JOKALARIA**

Gipuzkoako bigarren mailako txapelkun izan berri da Juan Rodriguez lasarteoriatarra, eta txapelketari zein xake munduari buruzko nondik norakoak kontatu dizkigu

**ñiaut G. de Matauko Rada**

Gogotsu dago Juan Rodriguez lasarteoriatarra Gipuzkoako bigarren mailako txapelkun izan eta lehen mailara igota. Jokoaz disfrutatzen jarraitu nahi du, eta ahal dela, maila gorenean partidaren bat irabazi.

**Gipuzkoako bigarren mailako txapelkun geratu zara. Zer nolako sentsazioak izan zenituen txapelketan zehar?**

Txapelketa honetara aurkeztu nintzenez, helburua partidaren bat irabaztea eta orokorrean jardun ona egitea zen. Joan den urtean, hirugarren mailan, laugarren geratu nintzen eta bigarren mailara igotzea lortu nuen. Lehen mailara txapelketako hiru sailkatu onenak igarotzen dira, eta txapelketa hastean ia ezinezkoa ikusten nuen.

Bigarren mailako txapelketa hastean, lehen partida irabazi nuen, eta bigarrena irabaztean ikusi nuen lehen mailara igotzeko aukera errealak nituela. Hirugarrena ere irabazi eta lider jarri nintzen, baina ez nuen uste irabaziko nuenik.



Juan Rodriguez Lasarte-Oriako xake jokalaria. TXINTXARRI

Laugarren partida ere irabazi nuen, eta puntu erdia gehiago behar nuen txapelketa ofizialki irabazteko. Partida hartan aurkariak ere puntu erdia behar zuen sailkatzeko, eta azkenean berdinketa hitzartu genuen.

**Gipuzkoako lehenengo mailan zaude orain, beraz?**

Bai, bigarren mailatik hiru partaide igo gara lehen mailara. Hemendik aurrera, baina, gauza asko zailtzen da, kategoria berdinean baikaude lehen mailakoak, preferentekoak eta absolutuak. Hemen ezberdintasun handiak daude kategoriako onenen eta okerrenen artean. Ni iritsi berria naiz, eta 1.600

puntu ditut. Hortik aurrera 1.900, 2.000 eta puntu gehiagoko jokalaria daude. Gipuzkoako txapelkunak, esate baterako, 2.400 ditu. Izugarria da iritsi berriekiko dagoen aldea. Hurrengo txapelketa, beraz, ezinezkoa izango da niretzat.

**Podiumeko argazkia ikusita, gazteak indartsu datozela ematen du.**

Hala da bai. Alex Odriozolak, bigarren sailkatuak, hamahiru urte besterik ez ditu. Eta ez da bera bakarrik. Kategoria horretan bost edo sei gazte daude, goi mailakoak denak. Alex Larrañagak ere hamahiru urte ditu, eta laugarren geratu da, hirugarrenaren puntu berdinekin.

**Jende askok dio xakea ez dela kirola. Zer uste duzu zuk?**

Jendeak ez du sinetsiko, baina kaloriak erretzen dira xakean jolasten, eta mentalki zer esanik ez dago. Kilo erdia inguru galtzen dugu jardunaldi bakoitzean. Partidan zehar ur asko edan behar izatea horren sintoma da. Ez naiz guztiz gai kirola den edo ez esateko, baina Federakuntza badago, ez dut uste akatsa denik kirola dela esatea.

**Halako txapelketa baterako prestakuntza edo entrenamendua behar al da?**

Oso ona bazara, seguruenik asko praktikatu gabe ia edonor irabaz dezakezu. Baina normalean egunerokotasunean jokatu beharra dago, gutxienez, goi mailako aurkariekin ibiltzeko. Ni gazte garaian hasi nintzen xakeko txapelketetan parte hartzen, 1975ean edo. Baina hortik gutxira utzi egin nuen

eta 40 urtez lehiatu gabe egon nintzen.

Nire semeak bultzatuta, Gros xake taldean sartu nintzen, eta klaseak jasotzen hasi. Andoni Segovia izan da nire irakaslea denbora horretan, goi mailako xake jokalaria. Berriz lehiatzeko gogoia sartu zitzaidan, eta hor hasi nintzen, pixkanaka hobetuz lehen mailara iritsi arte.

**Noiz hasi zinen ba xakean jolasten?**

Hamar urte inguru nituela lagunekin jolasten hasi nintzen, eskolan. Beranduago, Basaundiko eta San Pedro jaietan antolatzen zituzten txapelketetan parte hartzen hasi ginen. 1975eko San Pedrotako txapelketan, adibidez, bigarren geratu nintzen, Juan Luis Fernandinoren atzetik. Ondoren, Michelinen xake sekzioa ireki zuten, eta Angel Gonzalez laguna eta biok apuntatu egin ginen. Gustora nengoela ikusita, federatu egin nintzen 1978ra arte, urte horretan xake sekzioa kendu baitzuten. Eta hortik aurrera, lehen esan dudana bezala, 40 urtez lehiaketetatik kanpo egon nintzen nire semeak berriz lehiatzeko aholkua eman arte.

**Zer nolako helburuak dituzu lehenengo mailan?**

Helburu xumeak ditut, maila oso handia baita. Helburuetako bat ligan emaitza onen bat lortzea da, oso aurkari onak baitaude. Konparatzeko, nik 1.600 puntu ditut, eta Gipuzkoako onenak 2.400 puntu ditu. Txapelketan, berriz, parte hartzea da helburu nagusia, eta ahal bada, partidaren bat irabaztea.

## Anabel Eleno, Donostiako Maratoiko podiumeko gorenean

Lasarteoriatarra lehenengo izan da bere mailan. 41 herritarrek parte hartu dute maratoiko hiru probetan

**Txintxarri**

Nazioarteko 6.000 korrikalari izan ziren Donostiako kaleetan barrena igande goizean. Azken egunetako euri eta haize bolada bortitzek 42. Donostiako Maratoiko parte hartzaileei utzi zieten protagonismoa.

Maratoiko proban Collins Kipkorir keniarrak, 2.11.57, eta Susana Cunha portugesa, 2.36.09, izan ziren garaileak. Maratoi erdian, Archie Casteel suediarra,

1.04.10, eta Norvegiako Annemari Kiekara, 1.15.55, izan ziren nagusi. John Borjesson suediarrek, 30:31, eta Aratz Rodriguez hondarribiarrak, 36:35, 10K probako garaikurrak lortu zituzten.

**Eleno, maila gorenean**

Lasarte-Oriako 41 herritarrek ere parte hartu zuten Donostiako Maratoiko hiru probetako batean. 42 kilometroko proban bildu zen multzorik handiena, hogei

korrikalari, eta distantzia honetako parte-hartzaileetako bat izan zen ere podiuma zapaldu zuen herritar bakarra, Anabel Eleno. Lasarteoriatarrek beterean mailako 50 urte baino gehiagoko txapela eskuratu zuten. Anoetako Mini estadioko helmugara 3.03.43an iritsi zen Eleno. Marka ederra da, baina herritarra ez zegoen pozik egindako lanarekin, hiru ordutik behera egin nahi baitzuen proba.

Eleno, ordea, ez zen helmuga igaro zuen lehen herritarra. Aitor Otamendi izan zen ohore hori izan zuena. Ibilbidea 2.55.59 denboran egin zuen.

Maratoi erdian ere Lasarte-Oriako hamazazpi lasterkariko taldetxo bat bildu zen. 21



Anabel Eleno herritarra Donostiako Maratoiko podiumean. TXEMA VALLES

kilometroko proban, Gorka Gil izan zen herritarrik azkarrena, 1.13.59. Eta emakume mailan, berriz, Mari Carmen Olaso betereana, 1.33.59.

Azkenik, 10 km.-ko proban lau herritar besterik ez ziren izan. Julen Goena, 39.10 eta Rebeca Villanueva, 40.49 izan ziren azkarrenak euren mailetan.


## ZORION AGURRAK




**Aitor**  
Zorionak polita!!! Oso ondo pasa zure zazpigarren urtebetetzean!!! Asko maite zaitugu.



**Aitaxo eta Jon**  
Zorionak aitaxo eta Jon. Asko maite zaituztegu.



**Leire**  
Zorionak! Ondo ospatu zure urtebetetzean, holako polita eta txinbua segi. 11 txokolazteko muxu, Maialen, aiton-amona eta familiaren partetik, bihotzez..



**Pau**  
Zorionak eta musu haundi bat!!

## SUDOKUA

3				4	6	8	1	9
8		6		1	9	3		2
	9	1	3	8			6	
				5	7	4	2	
			4		3			5
5			9					
	6						5	
		7			4	6		1
	3		6	7		2		8

## JAIOTAKOAK

**Maddi Del Campo Sasiain.** Azaroaren 19an.  
**Manex Salsamendi Marcos.** Azaroaren 16an.

## HILDAKOAK

**Heliodoro Jorge Barriga.** Azaroaren 26an.  
**Isabel Herrera Blanco.** Azaroaren 25ean.  
**Gregoria Aramburu Ijorra.** Azaroaren 24an.  
**Lucia Garcia Blazquez.** Azaroaren 23an.  
**Carlos Etxeberria Jauregi.** Azaroaren 22an.  
**Amalia Vazquez Martinez.** Azaroaren 21an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 29	GIL
Larunbata, 30	URBISTONDO
Igandea, 01	URBISTONDO
Astelehena, 02	GANDARIAS-URIBE
Astearte, 03	ORUE
Asteazkena, 04	DE MIGUEL
Osteguna, 05	LASA
Ostirala, 06	GIL
Larunbata, 07	GIL
Igandea, 08	GIL
Astelehena, 09	ACHA-ORBEA
Astearte, 10	URBISTONDO
Asteazkena, 11	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 12	ORUE

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINITZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

### Jaiotzen lehiaketa

Danak Kide elkarteak Jaiotzen 27. lehiaketa martxan jarri du. 6 urtetik aurrerako herritarrek parte hartu dezakete lehiaketa. Adinen arabera lau taldeetan egongo dira banatuta. A taldea, 6 urtetik 9 urtera izango da; B taldea, 10 eta 13 urte bitartekoak; C taldean, 14 eta 17 urteko gazteak egongo dira; eta, helduak, D taldean lehiatuko dira. Mailaren arabera, 40 eta 120 euro arteko sariak jasoko dituzte lehen bi sailkatuek.

Lanak aurkezteko baldintzak honakoak dira; 80x60zm.-ko neurria izan beharko dute, eta oinarri sendoa. Elementuak lotuak joan behar dira. Ez da onartuko aurreko urteetan aurkeztutako lanik.

Lana aurkezterakoan, gutunazal itxi batean jasoko da izena, helbidea eta harremanetarako telefono bat. Kanpoko aldean adierazi beharko da zein mailatan lehiatzen den lana. Banaka zein taldeka parte hartu daiteke.

Jaiotzak abenduaren 19an, osteguna, eta 20an, ostirala, aurkeztuko dira, 17:00etatik 19:00etara, elkarteko egoitzan -Blas de Lezo 11-13-. Sari-banaketa, abenduaren 28an izango da, larunbatarekin, 12:00etan.

Lehiaketara onartutako lan guztiek saria izango dute: hamar euro. Gainera, San Pedro elizan egongo dira ikusgai. Sarituak, berriz, Muebles Azpeitiako erakuslehoetan ezarriko dituzte.

### Eslogan lehiaketa

Ttakun Kultur Elkarteak eslogan bila dabil eta lehiaketa antolatu du bazkide eta herritarren artean. Esloganak euskara, kultura eta Lasarte-Oria izan beharko ditu ardatz. Saria abenduaren 21ean ospatuko den Santo Tomas feriarako 2 bono izango dira. Bono bakoitzean bi talo, gaztainak eta sagardoa daude barne. Gainera, irabazleak ez du egun horretako ilara itxaron beharrik.

Proposamenak [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean, 646 824 466 whatsapp zenbakian edo Ttakuneko bulegoan, Geltoki kalea 4, jasoko dira.

Esloganarekin batera, egilearen izena, helbide elektronikoa eta telefonoa eman beharko dira. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 1a da. 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte.

Irabazlea Abenduaren 4an emango da jakitera, asteazkena. Ttakun Kultur Elkarteak zuzendaritza eta langileen artean osatuko epaimahaiak erabakiko du garailea, eta apelazina izango da.

Ttakun Kultur Elkartearen jabetzan geratuko dira esloganak. Horrenbestez, elkarteak eskubidea izango du erabilera komertziala egiteko eta bere eslogan moduan erabiltzeko, argitaratzeko eta/edo erreproduzitzeko.

# txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Hurrengo Txintxarri paperean,  
**abenduaren 13an**  
argitaratuko dugu.

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean!!



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)



**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### LANA

**ESKAINITZA**  
Pertsona bat behar da bi lagunentzat janaria prestatu eta garbiketa egiteko. Astelehenerik ostiralera, 06:00etatik 09:00etara. Harremanetarako zenbakia, 943 373 706.

### ESKARIA

Esperientziadun pertsona bat naiz; prest nago etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko. Lasarte-Oriako bi familiekin lan egin dut orain arte. Harremanetarako zenbakia, 632 990 016.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka,

jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 648 243 984.

### BESTELAKOAK

Baserritar jantzia beharko nuke, 2 neurrikoa, neska txiki batentzako. Harremanetarako zenbakia, 688 667 982.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa, Iñaut Gonzalez de  
Matauko eta Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Iñaki Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 29

### LASARTE-ORIA Musika

Gazteek *Alarma Morea* taldearen kontzertuaz gozatuko dute. Solasaldia ere izango da. Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko egitarauko ekimena da. Gaztelekua, 17:30ean.

### LASARTE-ORIA Musika

Oiasso kamerata boskoteak Danok Kideren XV. Musika Topaketei hasiera emango die. Ama Brigitarren kapera, 19:30ean.

### LASARTE-ORIA Dokumentala

Zinema-rock gauean, Lou dokumentala eskainiko dute. Jalgi Kafe Antzokia, 23:00etan.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Jose Luis Elexpe *Pelex-en Ideiak izartzen* erakusketa ikusgai dago. Erakusketa abenduaren 16ra arte egongo da ikusgai. Siglo 20, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

*Nuestros cuerpos, territorios diversos* erakusketa jarri dute. Azaroaren 30era arte egongo da ikusgai. Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko egitarauko ekimena da. Emakumeen Zentro Zibikoa, egun osoa.

## LARUNBATA 30

### LASARTE-ORIA Musika

Ondarroako Hara! taldearen eskutik rock gaua izango da. *Errotak* diskaren aurkezpen biraren barruko emanaldia da. Jalgi Kafe Antzokia, 21:30ean.

## IGANDEA 1

### LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du. Doinu klasikoetan oinarritutako egitaraua aurkeztuko du orkestrak. Ama Brigitarren kapera, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Musika

Eskualdeetako Gabon kanten IV. Jaialdia antolatu du Gipuzkoako Eskualdeetako Etxeen Federazioak. Xumela koruak eta Semblante



**LASARTE-ORIA Zuekin, 'Ez dok amairu'.** Jalgune elkarteak *Zuekin, 'Ez dok amahiru'* jaialdia antolatu dute. Musika, dantza, antzerkia... elkarteak kideak hainbat disziplinatan ikusteko aukera izango da. Sorgin Jaiak, Gazte kluba, Zabaleta Auzolan auzo elkarte... ez dira oholztan bakarrik egongo, herriko hainbat elkarte eta lagunek bat egingo baitute jaialdi koloretsu eta anitza osatzeko. Aurten, Manuel Lekuonako aretoaren aforo murrizketa dela eta, berrikuntza bat dakarte. Abenduaren 3an, aniztasun funtzionala duten pertsonen nazioarteko egunean, ikuskitzaren proiektioa eskainiko dute TXINTXARRI aldizkariaren laguntzaz. Gonbidapena behar da bi ekitaldietara joan ahal izateko. Larunbateko gonbidapenak agortu dira. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata 30 eta asteazkena 3, 18:30ean.

Rociero abesbatzak parte hartuko dute. Gonbidapena behar da. Manuel Lekuona kultur etxea, 12:00etan.

## ASTELEHENA 2

**LASARTE-ORIA Magia ikuskizuna** Asier Kidam magoak magia ikuskizuna eskainiko du. Jalgi Kafe Antzokia, 18:30ean.

## ASTEAZKENA 3

**LASARTE-ORIA LasarteTop** LasarteTop bilera egingo dute herriko hainbat eragilek. Bertan 2020 urtean datozen X. Euskararen Maratoiaren eta Euskaraldiaren lehen pausoen berri emango da, besteak beste. Antonio Mercero aretoa, 18:30etik 20:00etara.

## ASTEARTEA 10

**LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa** Amaraun Klubeko HH3 eta HH4 mailako haurrek ipuin kontaketa saio bereziaz gozatuko dute. Abestiak, eskulanak... landuko dira haurrek ipuineko gaia bereganatzeko. Izen

ematea Ttakun Kultur Elkartearen, [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbidean edo 695 785 392 whatsapp zenbakian. Anbulategiko eraikineko 2. solairua, 17:45etik 18:45era.

## ASTEAZKENA 11

### LASARTE-ORIA Opera

Opera zaletuek *Opera Gala: Live from Baden-Baden* ikus-entzunezkoaz gozatuko dute. Horretan Anja Harteros, Ekaterina Gubanova, Jonas Kaufmann eta Bryn Terfel abeslariak operako hainbat doinu ezagun eskaini zituzte, hala nola, Pucciniren *Tosca*, Mascagniren *Otello* edo Verdiren *Cavalleria rusticana*. Sarrera, aurrez, 7 euro; egunean, 9 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

## OSTEGUNA 12

**LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa** 6 eta 8 urte arteko gaztetxoek Kontukantoiko kideen istorio eta marrazkiekin milaka abentura biziko dituzte. Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Gracias a Dios**  
Ostirala: 17:00.

**Asto Erregea**  
Igandea: 17:00.

**El silencio de la ciudad blanca**  
Igandea: 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**La oveja Shaun: Granjagedon**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

**Si yo fuera rico**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30, 22:00.

### HERNANI

#### BITERI

**Mr Link, jatorri galdua.**  
Larunbata: 16:30.  
Igandea: 16:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Frozen II

Ostirala: 15:45, 16:35, 17:45, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:25, 21:25.  
Larunbata: 15:45, 16:35, 17:45, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:25, 21:25.  
Igandea: 12:00(3D), 12:30, 15:45, 16:35, 17:45, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:25, 21:25.

**Last Christmas**  
Ostirala: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.  
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.  
Igandea: 12:00, 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

### Puñales por la espalda

Ostirala: 15:45, 22:30, 01:00.  
Larunbata: 15:45, 22:30, 01:00.  
Igandea: 12:30, 15:45, 22:30.

### Si yo fuera rico

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:15, 22:50, 01:00.  
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:15, 22:50, 01:00.  
Igandea: 15:45, 18:00, 20:15, 22:50.

### Le Mans '66

Ostirala: 16:15, 18:30, 21:30, 23:45.  
Larunbata: 16:15, 18:30, 21:30, 23:45.  
Igandea: 12:00, 16:15, 18:30, 21:30.

### Adiós

Ostirala: 16:00, 21:35, 00:05.

Larunbata: 16:00, 21:35, 00:05.  
Igandea: 16:00, 21:35.

### Joker

Ostirala: 20:10, 22:00, 00:35.  
Larunbata: 20:10, 22:00, 00:35.  
Igandea: 12:00, 20:10, 22:00.

### Estafadoras De Wall Street

Ostirala: 22:40, 01:00.  
Larunbata: 22:40, 01:00.  
Igandea: 22:40.

### La familia Addams

Ostirala: 15:45.  
Larunbata: 15:45.  
Igandea: 12:30.

### La casa del terror

Ostirala: 00:35.  
Larunbata: 00:35.

### Maléfica: Maestra del mal

Igandea: 12:30.



### LABURPENA

### LOU, dantzan jo ta ke, oinak lehertu nahian

Zuzendaria: Usua Garin, Andrea Lopetegi Lopez, Izotz Barrio. Herr.: Espainia (2018). Iraupena: 59 minutu.

## Lou, Euskal Rock Erradikalaren ahotsa

Jalgi Kafe antzokiak zinema-rock gaua antolatu du. Lehen saio honetan, *Lou, dantzan jo take, oinak lehertu arte* dokumentala eskainiko dute.

2012 urtean zendutako Lou Olangua abeslariaren bizitzan oinarritutako lana da. Olanguaren gertukoak ziren lagun eta musikariaren hitzek eta garai hartako irudiek musikariaren bizitzaren barrena eramango dituzte ikusleak.

80ko hamarkadan Olangua euskal rockean lehen emakume abeslarietakoa izan zen. Humedecidos, OK Korral eta Las

Lagartas taldeetako abeslaria zen. Punk, rock-and-rolla eta euskalbillya ziren taldeek jorratutako estiloak. Baina ahotsa baino askoz gehiago zen. Taula gainean, probokatzailea zen bai estetikarengatik, bai jarrerarengatik ere.

Dokumentala Usua Garin, Andrea Lopetegi eta Izotz Barrio hirukoaren lehen lana da. Zarauzko Udaleko Daniel Txopitea bekari esker egin ahal izan dute. Aurtengo urtarrilean Dock of the Bay, Donostiako Musika Dokumentalen Jaialdian eskaini eta ikusleen saria jaso zuen.



**ARAETA Sagardotegia**  
"Won ton" ontzian marinaturako izokina oliba beltz deshidratatu eta lupo arrautzekin




**YOLANDA taberna**  
Urdailazpiko eta tipulaz betetako masalak patata errekin eta txokolate zuriz eta curry-z estalitako krispetekin



**TXARTEL kafetegia**  
Amendola karraskariez bildutako ahauntz-gazta mokadua karamelizatutako tipularekin



**BUENETXEA Taberna-kafetegia**  
Lur, Itsaso eta aires betetako muskulua wakame algarekin



**ARKUPE taberna**  
Hirugihar, patata eta odolki-zko hostopila



**EGUZKI taberna**  
Marinaturako otarrainxka-tenpura wakame entsalada eta mangozko chutney-arekin



**LASARTE taberna**  
Olagarro txupittoa

# VII Aterpea Pintxo Bidea

Lasarte-Oria  
2019

## Azaroak 29 eta 30, Abenduak 1

**Ostirala**  
19:00-21:00

**Larunbata**  
Eguerdian eta  
19:00-21:00

**Igandea**  
Eguerdian



**PARTE HARTU!**  
200€ lor ditzakezu erosketa-bonoetan!

Lasarte-Oria Gastronomikoa



**Ttakun**  
Kultur Elkarte

54€ urtean

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

**Elikatu hizkuntza eta kultura !**



**ABENDUAREN 31a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!**

**Izen-abizenak:** \_\_\_\_\_

**NAN:** \_\_\_\_\_ **Jaiotze data:** \_\_\_\_\_

**Helbidea:** \_\_\_\_\_ **Herria:** \_\_\_\_\_

**Telefonoak:** \_\_\_\_\_

**e-maila:** \_\_\_\_\_


**Kontu korrontea (IBAN):** \_\_\_\_\_

Bidali postaz edo utzi bulegoan:  
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:  
[www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)



Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideak irauten duen bitartean edota betebeharrak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaluz [datubabesa@ttakun.eus](mailto:datubabesa@ttakun.eus) helbidera.

**Informazioa eta bazkideak:** [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48